

BIZKAIKO EUSKEREAA ZUZENTZEN

EDO, ALA, NAIZ

Ona emen beste aberastasun bat euskeran, gitxienez Bizkaikoan. Erderazko "o" banatzaillea agertzeko ere. Gaurko onetan "edo" eta "ala" kontuan artuko doguz. Badago gaiñera "naiz" edo "nai": "artoa naiz garia onak dira orea egiteko". Au biai baietza emoteko.

Bizkaiko euskereak ondo bereizten dau noz erabilli "edo" eta noz "ala". Gipuzkoan gauzea ez dago ain argi.

"Edo" erabilten dogu baietzaren edo ezetzaren esaldietan: "Kepa edo Miren datorrela gaur saria artzeko". "Kepa edo Miren ez daitela etorri gaur, saririk ez dago-ta".

"Ala" erabilten da zalantza edo itauna danean: "Zein etorriko da, Kepa ala Miren?". "Ez dakit garia ala artoa artzen dan geiago gure soloetan".

Txarto esanak esaldi oneik: "II ala bizi bardin da". "II edo bizi ez da bardin". "Zein etorriko da, aita edo ama?". "Ez dakit zein dan ohea, artoa edo garia".

Ez naz ausartzen "naiz" erabilteko arauak emoten, baiña esaldi oneik adibide lez ipiñikeran, noizean bein "naiz" etorten izan jat miñaren erpiñera. Ba-dirala arauak dirudi.

ETORRI EGIN DA

Galdegaia garrantzi aundia dau gure joskeran. Ez aitzu Bizkaian joskerea obeto erabilten dogula beste euskalkietan baiña.

Galdegaia zer dan eta zelan erabilten dan ikasteko urrezko liburua dozu Adolfo Arejitarena. Darabiltzan gramatika-izenak ez nator batera, esaterako "menpeko esaldia" (subordinada esateko), baiña liburua egokia ta ona da, argitsua da.

Zeozer esaten dogunean zer itandu dan edo zer dan garrantzitsua jakin bear dogu, eta ori aditzaren aurrean ipinten da, esaldi osoa izanda be bai.

Ona emen adibideak: "Gaur Andoni gabaz etorri jaku etxera". Noz? "Gaur etorri da Andoni etxera gabaz". Nor? "Andoni etorri da etxera gaur gabaz". Egunez ala gabaz? "Gaur Andoni gabaz etorri da etxera". Nora? "Andoni gaur gabaz etxera etorri jaku". Zer egin dau Andonik? "Andoni etorri egin da etxera gaur gabaz".

Aditza bera galdegaia danean ipinten jako ostean "egin".

Izen baten orde esaldi osoa be izan daiteke galdegaia: Zer? "Etxera etorteko esan dau osabeak". Nork? "Osabeak esan dau etxera etorteko". Zer egin dau osabeak? "Etxera etorteko esan egin dau osabeak".

Ete dago bigarren lekua artu bear dauan galdegairik?. Baietz dirudi, baiña ez da erreza arau zeatzak emotea. Bardin ete da galdegaien aldetik "Gaur Andoni etxera etorri da gabaz" edo "gaur gabaz Andoni etxera etorri da".

Ez dago argi-argi baiña zeozer ba-dago or. "Gabaz" itzak bigarrenean garrantzi geiago daua dirudi.

ZEREN GAIÑEAN?

Gazteleraz "sobre" itz-aurrekoak "gaiñean" esan gura dau, baiña batzutan autu-gaia be agertzen dau: "Hablar sobre la fe". Bigarren esangura au ekarri ete lei euskerara eta "fedearen gaiñean berba egin" esan ete lei?

Bizkai guztian esaten da orrelan eta ondo dagoala dirudi, baiña or indar aundia dauka Azkue'k bere morfologian diñoanak. "Gaiñean" ez dala erabilli bear olakoetan diño eta adibide lez au dakar: Lekeition eleiztar batek au itaundu ei eutson sakristauari: "Zeren gaiñean egin dau berba gaur abadeak?". Eta au izan ei zan sakristauaren erantzuna: "Pulpituaren gaiñean". Orregaitik, aspaldion gure idazleak ez dabe erabilli "zeren gaiñean" gaia agertzeko. Erabilli bear dala? Bego.

Baiña ezetz diñogunok zelan esan "sobre" ori gaiari buruz?

Izen ordea danean "tzaz" erabilten da. "Nitzaz zer diñozu?". Baiña ez "fedeatzaz zer diñozu". Izen-ordea ez danean, -z azkenekoa erabilten dabe batzuk: "Fedez berba egin". Beste batzuk "buruz" erabilten dabe: "Fedeari buruz berba egin", edo "buruz"en orde "begira": "Fedeari begira berba egin".

-TEN/-TZEN

Idazleak bere zalantzak izaten dauz oiturazko aditza erabiltean. Zelan idatzi "etorten" ala "etortzen", "argituten" ala "argitzen", "indartuten" ala "indartzen"...?

Giputzak "-tzen" erabilten dabe larregi, bizkaitarrak, oster, "-tuten" geiegi. Ori diño Azkuek "Morfologia" beronen liburu ederrean eta eskualde bietakoentzat araubide bat eskintzen dau, gure ustez araubide oso egokia.

Azkue aundiaren ustez, "-tuten" agertzen danean, "-tzen" biurtu bear da eta besteetan "-ten". Eta ori balio ko litzake Bizkaian naiz Gipuzkoan. Ona emen adibideak: Kendu-kentzen, maitatu-maitatzen, zapaldu-zapaltzen, emon-emoten, ekarri-ekarten, ibilli-ibiltzen, joan-joaten, ekin-ekiten, jan-jaten, apaldu-apaltzen, goizaldu-goizaltzen, jagi-jagiten, eroan-eroaten, adoretu-adoretzen, indartu-indartzen...

Araubide au oso egokia dala deritxot, baiña ez dakit eritxi bardiñekoak izango diran gure anai-arreba giputzak.

OLAZAR'tar Martin'ek